

ERAIKUNTZA BERRIRAKO PROIEKTUA IDAZTEA – Maila aurreratua

*Hornitzaileentzako egiaztapen-zerrenda:
Ingurumen-irizpideak*



1. ERANSKINA: ESKAKIZUNAK

Markatu BAI zutabeko laukia, nahitaezko espezifikazio minimo guztiak eta baloratzekoak betetzen dituzula baieztatzeko. Nahitaezko irizpideak bete ezean edota betetzen dituzula egiaztatzen duen abalik aurkeztu ezean, eskaintza ez dugu kontuan hartuko esleipen-prozedurako hurrengo faseetan.

Baloratzekoak diren espezifikazioei dagokienez, espezifikazioa betetzen dela egiaztatzeko abalik aurkeztu ezean, atal horretan punturik gabe geldituko da eskaintza. (Puntuazio horrek abantaila gehien duen eskaintza identifikatzeko balio du).


ENPRESAREN IZENA:				
NAHITAEZKO IRIZPIDEAK	BAI	ABAL MOTA	MEMORIA-ORRIA	
Proiektuaren A energia-kalifikazioa	<input type="checkbox"/>	1		
Eraikuntza eta eraispenerako hondakinak (EEH) kudeatzeko azterlana eta % 80ko balorizazioa gutxienez	<input type="checkbox"/>	1		
Ingurumen Kudeaketarako azterlan	<input type="checkbox"/>	1		
Agregakin birziklatuen % 25 erabilera egokietan	<input type="checkbox"/>	1		
Zura eta zurezko produktuak legezko iturrietatik eta mehatxatu gabeko espezieetatik eskuratu dira	<input type="checkbox"/>	1		
Lurzoruetan, ateetan eta leihoetan eta estalduretan erabiliko diren zura eta zurezko produktuak modu jasangarrian kudeatutako baso-ustiaketetatik etorriak	<input type="checkbox"/>	2		
Ur-hornidurako instalazio efizienteak	<input type="checkbox"/>	1		
1. AUKERA: Proiektuaren ingurumen-jasangarritasunaren kalifikazioa (IJK), Eraikuntza jasangarrirako giden metodologiaren arabera: % 43.	<input type="checkbox"/>	3		
BALORATZEKOAK DIREN IRIZPIDEAK	PUNTUAK (%) ¹	BAI	ABAL MOTA	MEMORIA-ORRIA
1. AUKERA				
Proiektuaren ingurumen-jasangarritasunaren kalifikazioa (IJK), Eraikuntza jasangarrirako giden metodologiaren arabera: % 43 baino handiagoa.		<input type="checkbox"/>	3	
2. AUKERA				
ERAIKINAREN KUDEAKETA: Eraikinean energia- eta ur-kontsumoaren jarraipena egin ahal izan soluzioak		<input type="checkbox"/>	1	

MATERIALAK: Material birziklatuen ehunekoak.		<input type="checkbox"/>	4	
URA: Urak berrerabiltzeko proposamenak.		<input type="checkbox"/>	1	

JARRAIBIDEAK

«**ABAL MOTA**» zutabean, baloratzekoa den espezifikazio edo irizpide bakoitza betetzen dela ziurtatzen duten ingurumen-ziurtagiriak, ekoetiketak edo dokumentuak sartu dira, edota informazio hori jasota duen dokumentazioa; hala ere, beste mota bateko egiaztagiri baliokideak ere onartuko dira, baldin eta ezarritako irizpideak betetzen direla argi adierazten badute.

Dokumentuek honako zenbaki hauek dituzte:

1.	Enpresaren konpromiso-adierazpena eta neurriaren xehetasuna
2.	Modu jasangarriaren kudeatutako baso-ustiaketetatik etorriko diren zurak edo zurezko produktuak 
3.	«Eraikuntza eta birgaitze jasangarriaren gidak» (http://construccionsostenible.eus) aplikatzearen ondoriozko dokumentua: emaitzen fitxa, eskuratutako puntuazioa eta aplikatu ez diren edo aplikatu ezin diren neurrien justifikazioa
4.	Eraikuntzan material birziklatuak erabiltzeko gidako kalkulu-tresna; Ihoberen webgunean eskura daiteke: https://www.ihobe.eus/publicaciones/guia-para-uso-materiales-reciclados-en-construccion-2

«**MEMORIAREN ORRIA**» zutabean, lizitazio-dokumentuan abala zein orrialde edo eranskinetan erantsi den adieraziko da.

¹ Esleipen-irizpideetan ingurumen-alderdietarako zehaztutakoaren arabera.